

Roberto Alaja, Portuko Galaja

Eulitxoa izan beharrean
Eulitzarra balitz
Izena bilatzeko
Ez nuke arazorik

Maradona-gatik Diego
Ernesto Che-gatik
Edo hobeto Carlos
Tango maisu-gatik

Baina hau eme txatxua
Ziur eskertzarrekoa
Rio de la Plata hirian
Utzi ninduen berdina

GARDEL MIRESTUAGATIK
DEITUKO DIOT CARLA
ELTXO ZARPAILA
ETA AIO HIZKETA PETRALA

Carla atorrante
Kontatzera noa
Nire birbiraitona
Hemengo zela

Italiarren semea
Hona etorrita
Trenbideak egitera
Aurreko mendean

Zeukan akordecia
Orain da trikitixa
Argentinara joan zen
Bandoneona jotzera

A! BIZITZAREN ITZULIAK
BERRIRO LORONTZI HONETAN
BOCA HAUZOTIK:
ROBERTO ALAJA, PORTUKO GALAJA



GAIZTAKERIAZ TXIKITUAK
GOGOZ ZAPALDUAK
ZER DELA ETA GUREKIN
HALAKO TRATUA?

EULIA:

Ba al da munstro basatirik
Gozatuko duenik
Niri hegalak kenduta
Egoteko geldirik?

ARMIARMA:

Ze izaki gaizto
Ote da pozez biziko
Niri hiru hankak kenduta
Gehiago ezin josteko?

GAIZTAKERIAZ TXIKITUAK...

EULIA:



Nire izateko era
Bada nahiko "kojoneira"
Baina ezin naute kondena
Anker moduko akabera

ARMIARMA:

Nire psikoanalistak
Dio: ez izan pesimista
Reality Show baterako?
Hor dago eta telebista

GAIZTAKERIAZ TXIKITUAK...

Euliak eta Armiarma



LEGALA DA
LEGALA DA
CHARLIRI KONTAIOZU
FIDATZEKO DA

LEGALA DA
LEGALA DA
PAPER GUZTIAK BAITITU
LEGALA DA

LEGALA DA
LEGALA DA
KAKA NAHASTE A ESTIMATZEN DU
LEGALA DA

Kakalardo kalakalaria
Berri-biltzailea, ikertzailea,
Manipulazio hitza ez aipatu
Politikoki zuzena da, kasu!

LEGALA DA
LEGALA DA
CHARLIRI KONTAIOZU
LEGALA BAITA


LEGALA DA
LEGALA DA
BERA EZ DA PRENTSA ZITALA
LEGALA DA

Charlie Legala Da

Informazio iturri freskoak
Antenak beti ari dira lanean
Kazetari independentea
Hau ez da "Bihotzeko Xomorroak"

Oohoho
Insektukaria
Oooooooo
Hemen aurkituko ez da
Oooooooo
Distrazio masibo armarik
Ooooooo
Adi egon mezuari

LEGALA DA...



Elxo Tronpetaria


Odola gehiegi maite dudala
Zer dela eta baldinbada nire janaria
Goxo, ez-titsu, hurrupagarria
Nire eztena da prest edozein momentutan

Mamuto horiek dira nahiko ergelak
Arrazen artean baitute zenbait liskarra
Niretzat bai pareko, den denak berdinak
Beraien odola zurrupatzen dudanean

Biziotsua?
Mesedez, transfusio bat
Ez dut maite
Xomorro helburua
Ezta pentsatu ere
Odolzale ezezagunak
Pailazo arraiaren
Marrazoez modan jarri arren
Odola gorriak
Txoratzen nau eta
Utzi, utzi pakean
Beste ziztada da nik behar dudana

"Legalize it! Yea, yea
Don't critizace it"
"Vicious
You hit me with a flower
You do it every hour
Ohh, baby you're so vicious"





Amarik Ez Dut

Amarik Ez dut
Ez nau inork maite
Xamurtasuna behar...
Zuk emateko prest?

Amarik ez dut
Umezurtz nauzue
Lorontzian bakarrik
Betiko halabeharrez

Hau ez da posible
Ezin liteke
Amatxo pitito nahi dut
Arren, s'il vous plait

Hau ez da posible
Ezin liteke
Amatxo pitito behar dut
Please, mesedez

Tximeleta Liu

Ni ederra Loto Lorea
Ordea ez naiz tentela
Atera nahi nirekin?
Arroza hiru gutiziek


Denek nahi nire muxuak
Mingaina dut bildua
Espiritronpa bada
Oso ona alga entsalada

Iritsi naiz Beijingdik
Borroka txol Shaolin
Zuk ere nahi erroilotxua?
Udaberrikoa bai goxua


Izan nahi abeslari?
Zopa garratza eta min
Nik ospe handiko aktorea
Bai saltsa gazi-geza

Kung-fu filmeak egin
Zizak banbuarekin
Badut nire bidea
Dasta dragoia errea

Topo egin nezake arin
Taranfula Tinorekin
Grabatuko Pil Pil Hiru
Ay! Badoa Tximeleta Liu



La Guardia Insectil



Guardia Insectilak dio: alto!
Egiteagatik soilik salto
Uraren beharra baikeneukan
Eta hemen baduzue soberan

Norbaitek daukanean denetik
Ez du banatu nahi piperrik
Atzerritar guztiei egurra
Hori da beraien agurra

Ek bakarrik badugu kantu bat
Mexicon iraultzarako abestua,
Mamuto Chack oroitu zen gutaz
Abesten zigun azken estrofaz:

"Cucaracha clandestina"
"Marihuana ilegal"

Guardia Insectil-ak dio: alto!
Egiteagatik soilik salto
Uraren beharra baikeneukan
Eta hemen baduzue soberan

Salam aleikum
Aleikum Salam
Habibi, Xomorro
Bat ere ez da ilegal



Xomorroak

BEGIRA! PILA BAT GARA
XOMORRO EZBERDINAK
BARRA BARRA
HANKA SARTZEN DUGU NAHIKOA
GORA INPERFEKZIOA!

CHARLIE:

Bizitza lorontzian hobereena da
Inork ez du inoiz arrazoi osoa

MARIA XOKORRO MAKIL XOMORRO:
Ametsak bete daitezke esnatzean
Saiatu behar gara egunerokoan

BEGIRA! PILA BAT GARA
XOMORROTXO EZBERDINAK
BARRA BARRA
HANKA SARTZEN DUGU NAHIKOA
OZEN DIOGU: GORA INPERFEKZIOA!

MANTTANGORRIA:

Gustatzen zait jaia eta egin matraka
Baita besteen ametsak betetzea

INURRIA:

Arazorik badaukat laguntzen naute
Adiskidetasuna, jo ta ke!

XOMORROEN POZA:

GORA INPERFEKZIOA!

(Bizitza Lorontzian)

